

Erdia

Mirari Martiarena

Garunak funtzio asko dituela jakina da, asko ezezagunak medikuntzarentzat eta zer esanik ez niretzat. Garunaren erdialdeko lesioetan, iktusetan, gorputzeko alde bat mugitu ezinda geratzen da pertsona. Garuneko erdialde horretan funtzio asko izaten ditugu, horien artean gorputzaren sentsibilitatea eta muskuluak mugitzeko gaitasuna. Garunaren erdialdearen zati bat kaltetua denean, gorputzeko kontrako aldea mugitzeko eta sentitzeko gaitasuna galtzen da. Baina horretaz gain, garunaren zati hori kaltetuta izateak ere izan dezake beste berezitasun bat: gorputzaren alde bateko kontzientzi galtzea.

Pertsona horientzat mundu guztia ezkerreko aldea edo eskuineko aldea izan-

go da. Otorduetan plateraren alde bakar bat soilik jatera irits daitezke. Nahiz eta jatekoaren erdia platerean dutela esan, ez dute bertako janaria bukatuko platerari buelta eman arte (ez dakit zopa jaten dutenetan zer egiten duten). Ez dira kontziente munduaren erdi bati ez dietela kasurik egiten. Pertsona hauentzat munduaren erdi hori ez omen da existitzen.

Antonen syndromeak garunaren atzeko aldea kaltetzen du. Bertako bi aldeak kaltetuz gero, pertsona itsu geratzen da, baina modu berezi batean: itsutasunaren kontzientziarik gabe. Gaixoari ikusten duen galdetuta baietz esaten omen du, baina, zer ikusten duen galdetuz gero, hitzik gabe geratzen omen da ez delako ikusteko gai.

Emakumearen Nazioarteko Eguna pasaberritan jakin ditut berezitasun hauek eta zer pentsatua eman didate. Munduaren erdiak ez baitu beste erdia ikusten eta ez dira kontziente platera beterik dagoela, edo platerean dauden pribilegioak banatu behar dituztela. Eta bururatu zait gizonezko askok izan dezaketela Anton syndromea. Esango dizute baietz, ikusten dutela emakumeon eskubideak zapaldu-rik daudela, baina ez dira gai zapalkuntza horiek zein diren esateko ez eta gizonezko izate hutsagatik dituzten pribilegioak identifikatzeko ere. Mutu geratzen dira, ikusi nahi ez duena baino itsu handiagorik ez dagoelako. Emakumeok jarraitu beharko dugu gure plateri buelta ematen, munduaren erdi horrek hemen gaudela ikus dezan. •

Umore sena

Koldo Sagasti

ñaki Perurena gizon handia da –eta ez gorpuzkeraz bakarrik–, etorri handiko solaskidea eta istorio kontalari aparta. Baina herri honetako zati handi batek esnekien iragarki batean gaztelerako fonemak ahoskatzeko dituen zailtasunengatik oroitu du beti. Zenbaitek oso barregarritzat dute erdal “C” hizkia bokalizatu ezinik “funtziona” dioen gizonkotea. Baina, gauzak zer diren, iragarki bereko euskarazko bertsioan Carlos Sobera ere ezinean agertzen da produktu berberak “*funchionachen*” duela esanez. Barakaldarrak euskal ahoskeran erakusten duen baldarkeria, ordea, ez da euskaldunon burlarako arrazoi; aitzitik, eskertu egin behar diogu er-

dal hiztunari egindako ahalegina, hain gara adeitsuak!

Egunotan hautsak harrotu dituzte EITBko saio batean espainolen inguruko aurreiritzien kontura egindako txantxek. Euskarazko saioa sekula ikusiko ez zuten askok espantuak egin dituzte, erdal hedabide batek irudien hautaketa maltzur bat argitaratutakoan, adierazpenak iraingarritzat dituztelako. Lehendakariak berak, otzan eta leial, barkamena eskatu die espainiar irainduei euskaldun guztien izenean, eta telebista publikoak erretiratu egin du saio polemikoa bere webgunetik. Euskaldun petoaren lepotik iseka egitea politikoki zuzena da; eta guk,

umore onekoak garenez, hamaika aldiz entzun behar izan ditugu guri buruzko estereotipoak aspertzearaino ustiatzen dituzten txiste errazak. Adibideak kontaezinak dira, “Ocho apellidos vascos” filmetik hasita. Baina gustu txarrekoa omen da espainolei buruzko topikoak astintzea, iraingarria, lotsagabea; are gehiago auzokideari trufa egiten diona euskalduna denean. Bada, agian bada garaia geure buruaz gain ondokoarenaz ere burla egiten hasteko. Segur aski ez da errespetuzkoa izango, ezta gustu onekoa ere, besteen topikoen bizkarretik barre egitea; baina exorzismo ariketa moduan “funtzionatu” egingo du. •